Instrumentistak hautatzeko deialdi publikoa arautuko duten oinarriak

1.- Xedea.

Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioak (aurrerantzean, BOS) lan-kontratu mugagabearen bidez honako lanpostuak betetzeko probetarako deialdia egin du:

Instrumentua/Postua	Lanpostu hutsen kopurua	Urteko ordainsari gordina, gutxi gorabehera	Interpretatu beharreko programa
2. kontzertinoa	1	56.752,02 €	I. eranskina
II. biolin bakarlaria.	1	46.680,10 €	II. eranskina
Biola bakarlaria	1	46.680,10 €	III. eranskina
Biolontxelo bakarlaria	1	46.680,10 €	IV. eranskina
Biolontxelo bakarlariaren laguntzailea	1	40.275,10 €	

2017-18 denboraldiaren hasieran sartuko dira BOSera.

2. Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonek parte hartu ahal izango dute entzunaldietan:

a) Adinez nagusia izan behar da.
b) V. eranskinean adierazitako titulu ofiziala edukitzea edo titulu hori lortzeko moduan egotea, eskaerak onartzeko epea amaitzen den egunean. Ez izatea lana behar bezala egitea eragotziko duen gaixotasun edo akats fisikorik.
d) Ez egotea desgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren legezko arrazoiren baten pean.
e) Europako Erkidegokoak ez diren langileen kasuan, Espainian lan egiteko eta bizitzeko baimena indarrean izatea.

Baldintza guztiak bete beharko dira izena emateko epea amaitzen den egunean.

3. Oinarrien onarpena.

Hautaketa prozesuan parte hartzeak hautagaiek oinarri guztiak onartzen dituztela esan nahi du.

4. Datu pertsonalen babesa.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoarekin (DBLO) bat etorriz, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak, zuk emandakoak edo musika arloko lanpostu hutsen gaineko www.muv.ac.es kudeatzailearen bitartez lortutakoak, Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioaren fitxategietan sartuko direla, azken horretako langileen hautaketa prozesuen parte-hartzaile gisa, Fundazioak bete gabe dituen lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuak eta kontaktuak kudeatzeko. Horretarako, entzunaldietako deialdiak arautzen dituzten oinarriak onartzen dira.

Hautagaiek baimena ematen dute, era berean, onartutako/baztertutako hautagaien zerrendak eta hautaketa prozesuaren emaitzen eta azken emaitzaren zerrendak fundazioaren www.bilbaorkestra.eus webgunean argitaratu daitezen, hautaketa prozesuaren kontrola eta gardentasuna ahalbidetzeko.

DBLOk aitortutako datuak erabili, baliogabetu, zuzendu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte hautagaiek, idatzizko eskabide sinatua bidaliz Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioaren helbide honetara: Abandoibarra etorbidea 4 - 48011 Bilbao; edo bos@bilbaorkestra.eus helbidera, eta, edozein kasutan, NANaren kopia erantsiz. Datuak aldatuz gero, helbide berean jakinarazi beharko da, eta, hori egin ezean, enpresak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain.

5- Inskripzioak.

5.1. Probetan parte hartu nahi dutenek MUV.AC (http://www.muv.ac) web plataforman eman beharko dute izena on line.

5.2. Izena emateko **epea 2017ko martxoaren 15ean** amaituko da. Ez dira epez kanpoko inskripzioak onartuko.

5.3. Hautagaiek informazio hau bete beharko dute MUV.AC webg plataforman:

- Izen-abizenak.
- Helbidea
- Harremanetarako telefonoa
- Helbide elektronikoa
- Nazionalitatea
- Jaiotza-data

5.4. Izena eman duten hautagaiek muv.ac plataformako profila bete beharko dute, **derrigorrezko dokumentazio** honekin:

1) Indarreko NANaren, nortasun-agiriaren, AIZren edo pasaportearen kopia.
2) Eskatutako tituluaren kopia.
3) Europako Erkidegokoak ez diren langileen kasuan, Espainian lan egiteko eta bizitzeko baimenaren kopia.

Dokumentazio hori epe barruan aurkezten ez bada, hautaketa prozesutik baztertuko da.

Benetakoa dela egiaztatzeko asmoz, BOSek jatorrizko dokumentuak edo konpultsatutako kopia aurkezteko eskatu ahal izango du edozein unetan.

6.- Behin-behineko onarpena.

Izena emateko epe hori amaituta, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du BOSek, eta Orkestraren webgunean (www.bilbaorkestra.eus) nahiz iragarki-taulan argitaratuko du.

Zerrenda horretatik kanpo geratu direnek 3 egun naturaleko epea izango dute bazterketa eragin duten akatsak zuzentzeko.

7.- Behin betiko onarpena.

Aurreko epe hori amaituta, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratuko du BOSek, eta Orkestraren webgunean (www.bilbaorkestra.eus) nahiz iragarki-taulan argitaratuko du.

Edozelan ere, aipatutako zerrenda onartu eta gero, probak egitean ere, ikusiko balitz hautagaiak baztertzeko moduko zehaztasun faltak edo gezurrak daudela dokumentazioan, hori akats konponezintzat hartuko da eta hautagaia baztertzeari buruzko erabakia hartuko da.

8. Kalifikazio-epaimahaiak.

8.1. Kalifikazio-epaimahaiak honela eratuta egongo dira:

- Mahaiburua: BOSeko zuzendari titularra, orkestrako zuzendari bat, BOSeko langile bat edota BOSek izendatutako kanpoko espezialista bat.
- Mahaikideak: BOSek izendatutako BOSeko irakaslea edo kanpoko espezialista. Gutxienez bost eta gehienez bederatzi kide izango dira.
- Idazkaria: BOSeko langile bat, azken horrek izendatua.

Epaimahaia osatzen duten kideen zerrenda onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da, eta BOSen webgunean egongo da ikusgai, baita Orkestraren iragarki-taulan ere.
Titularrekin batera, beste horrenbeste ordezko izendatuko dira, eskakizun berberekin.

8.2. Epaimahaiko kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botorik izango.

8.3. Epaimahaiko kideek ez dute prozesuan parte hartuko, Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusten den egoeraren bat jazotzen denean.

8.4. Epaimahaia ezingo da eratu, eta ezingo du jardun, boto-eskubidea duten kideen erdiak ez badaude (titularrak edo ordezkoak). Horien artean mahaiburua egon beharko da, nahitaez.
Halaber, ezingo da eratu, ezta jardun ere, idazkaria egon gabe.

9. Probetarako egutegia eta lekua.

Hona hemen proben behin-behineko egutegia:

Instrumentua/Postua	Proben eguna
2. kontzertinoa	**2017ko ekainaren 1a**
Gainerako postuak	**2017ko maiatzaren 22tik 31ra**

Instrumentu bakoitzerako probak egiteko data eta ordu zehatzak onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan agertuko dira.
Edozein arrazoi dela-eta, aurrez ezarritako dataren bat aldatu beharra balego, aldaketa gauzatu baino gutxienez 10 egun lehenago eman beharko da horren berri.

Probak BOSen egoitzan egingo dira. (Abandoibarra Etorbidea 4. Palacio Euskalduna Jauregia. 48011 Bilbao. Telefonoa: +34 94 403 52 05. Helbide elektronikoa: audiciones@bilbaorkestra.eus)

10. Probak egiteko arauak.

a) Probak zenbait txandatan egingo dira, eta obrak Epaimahaiak erabakitakoaren arabera joko dira. Epaimahaiak edozein momentutan eten ahalko du hautagai baten proba, amaituta ez badago ere, hautagaia baloratzeko nahikoa irizpide dituela uste badu.
Hautagaiek joko dituzten obrak lehenengo oinarrian jasotako eranskinetan daude zehaztuta.

b) Hautagaiek piano-jotzaile baten laguntza izango dute; piano-jotzailea BOSek jarriko du. Piano-jotzaile pertsonala hautatzeko aukera ere izango dute. Kasu horretan, BOSi berariaz eta idatziz jakinarazi beharko zaio. Hautagairen batek BOSena ez den beste piano-jotzaileren bat eramango balu, hautagai horrek ordaindu beharko ditu horrek sorrarazten dituen gastu guztiak.
Ez da BOSeko piano-jotzailearekin aldez aurretik entsegua egiteko aukera izango, ezta piano-jotzailearekin entzunaldiak egingo diren aretoan entseguak egiteko ere.

c) Hautagaien parte-hartzearen hurrenkera zehazteko, zozketa egingo da probak egin baino lehen.

d) Txanda bakoitzean, hautagaiei ahots goran eta behin egingo zaie deia, eta unean bertan agertzen ez direnak baztertuta geratuko dira.

e) Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die hautagaiei beraien nortasuna egiaztatzeko.

f) Lehenengo txanda, gutxienez, gortinaren atzean egingo da.

g) Gortina osteko proba egin bitartean, Epaimahaiak ezarritako programa zorroztasunez interpretatuko du hautagaiak. Ezingo du Epaimahaiari hautagaia ezagutarazten lagun diezaiokeen soinurik, zaratarik edota hitzik igorri. Baldintza hau betetzen ez duten hautagaiak hautaketa prozesutik kanpo gera daitezke, Epaimahaiak hala ebazten badu.

h) Gortina atzeko entzunaldiak iraun bitartean, hautagaiek eta Epaimahaiko kideek ezingo dute gailu elektronikorik erabili, ezta erakutsi ere.

i) Hautaketa prozesuan jarraitzen duten bitartean, hautagaiek ezingo dute entzule gisa sartu probak egiten ari diren aretora.

11. Proben kalifikazioa.

Txanda bakoitzean 0 eta 10 puntu bitartean emango dira, eta txandetako batean 5 puntutik behera lortzen dituzten hautagaiak kanpoan geratuko dira.

Hautagaien kalifikazioa Epaimahaiko kideen artean erabakiko da.

Puntuazioa Epaimahaiko kide bakoitzak jarritako puntuazioen batez bestekoa izango da. Ez dira kontuan hartuko puntuaziorik altuena eta baxuena, eta ezingo da puntuazio handien bat eta txikien bat baino gehiago baztertu.

Berdinketa egonez gero, Epaimahaiak beste proba bat ezarri ahalko du, berdinketa hori hausteko. Epaimahaiak esleipendunik gabe utzi dezake deialdia.

Lan-poltsa: hautatu ez dituzten baina lehen txanda gainditu duten hautagaiak dagokien instrumentuko BOSen lan-poltsan sartuko dira.
Lan-poltsan sartzeak ez du inola ere bermatzen BOSek kontratatzea, eta ez du aitortzen lan-poltsako hautagaien lan-eskubiderik, BOSek Orkestraren beharren arabera eta ebaluazio artistikoaren eta poltsako kudeaketa-arauen arabera deitzeko aukera salbu.

12. Probetara entzule gisa joateko aukera.

Probetara entzule gisa joateko aukera VI. eranskinean dago araututa.

13. Epaimahaiaren proposamena eta kontratazioa.

13.1 Proben kalifikazioa amaituta, Epaimahaiak BOSeko Zuzendaritza Nagusiari helaraziko dio kontrataziorako proposamena.
Proposamen hori BOSen webgunean argitaratuko da, baita Orkestraren iragarki-oholean ere.

13.2 Ezingo da deitutako lanpostu-kopurua baino kontratu gehiago gauzatu.

13.3 Kontratua sinatzeko orduan, hautagaiak jarraian zehazten diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu BOSen:

- BOSen Prebentzio Zerbitzuaren aldeko txostena, deitutako plazetara sartzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

- Diziplina espediente bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bazterturik eta kaleratze ezegokiarekin zigortuta ez egotea edota epai irmo bidez eginkizun publikoetan aritzeko ezgaiturik ez egotea bermatzen duen erantzukizunpeko aitorpena.

13.4 Proposatutako hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo ez baditu eskatutako betekizunak betetzen, ezin izango da kontratatua izan eta bere saioak baliogabetu egingo dira.
Kasu horretan, probak gainditu eta aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako plaza-kopuruan sartzen den hautagaia kontratatzeko proposamena egingo du Epaimahaiak.

13.5 Kontratazioa jendaurreko ikuskizunetako artisten lan-harreman bereziak erregulatzen dituen abuztuaren 1eko 1435/1985 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.

13.6. Probaldia: kontratutakoa legean ezarritako probaldiari lotuta egongo da.

13.7. Hitzarmen kolektiboa: BOSen hitzarmen kolektiboa aplikatuko da. (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 247. zenbakian, 2013ko abenduaren 27an.)

13.8. Instrumentua eramatea: Kontratatutakoak bere jarduera profesionala egiteko ahalik eta kalitaterik oneneko instrumentua (dagokion espezialitatekoa) eraman behar du, eta inola ere ezin izango da izan oinarri hauetan araututako entzunaldian erabiliko den instrumentua baino kalitate txikiagokoa.

13.9. Hautagaia jakinaren gainean geratzen da, bigarren jarduera bat egiteko, BOSek bateragarritasunerako baimena eman behar duela. (53/1984 Legea, abenduaren 26koa, administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzkoa eta 598/1985 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Estatuaren, Gizarte Segurantzaren eta mendeko erakunde eta enpresen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunei buruzkoa).

14. Gorabeherak.

Epaimahaiak baimena dauka aurkezten zaizkion zalantzak argitzeko eta dagozkion erabakiak hartzeko, hautaketa prozesua behar bezala egin dadin, oinarri hauetan ezarri ez den guztiari dagokionez.

Bilbon, 2016ko abenduaren 19an.

I. eranskina

Postua: 2. kontzertinoa

Interpretatu beharreko obrak

A) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen eta bigarren mugimenduak jo beharko ditu, dagokion kadentziarekin:

- W.A. Mozart: 3. kontzertua Sol maiorrean, KV 216.
- W.A. Mozart: 4. kontzertua Re maiorrean, KV 218.
- W.A. Mozart: 5. kontzertua La maiorrean, KV 219.

B) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen eta bigarren mugimenduak jo beharko ditu, dagokion kadentziarekin:

- L. van Beethoven: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 61.
- F. Mendelssohn: Kontzertua biolinerako mi minorrean, op. 64.
- J. Brahms: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 77.
- P. I. Tchaikovsky: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 35.
- J. Sibelius: Kontzertua biolinerako re minorrean, op. 47.

C) Orkestra-errepertorioa, jarraian adierazitako zerrendatik Epaimahaiak aukeratzekoa:

Obra-zati guztiak eskuragarri daude Orchester-Probespiel orkestrarako errepertorio-liburuetan. Violine; Band 1: Konzertmeister und Vorspieler de 1. Violinen Karin Boerries & Artur F. Wendt. Schott (ED 7850). ISMN M-001-08138-2

- J.S. Bach: Matthaus Passion (39. zk., "Erbarme dich" eta 42. zk., "Gebt mir meinen Jesum Wieder").
- L. van Beethoven: Missa Solemnes (Benedictus).
- P.I. Tchaikovsky: Beltxargen lakua (II. ekitaldia, 13. zk. Scène).
- N. Rimsky-Korsakov: Sheherezade, op. 35 (atal guztiak).
- R. Strauss: Ein Heldenleben, op. 40
- R. Strauss: Also sprach Zarathustra (waltz).

II. eranskina

Postua: II. biolin bakarlaria.

Interpretatu beharreko obrak

A) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen eta bigarren mugimenduak jo beharko ditu, dagokion kadentziarekin:

- W.A. Mozart: 3. kontzertua Sol maiorrean, KV 216.
- W.A. Mozart: 4. kontzertua Re maiorrean, KV 218.
- W.A. Mozart: 5. kontzertua La maiorrean, KV 219.

B) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen mugimendua jo beharko du, dagokion kadentziarekin:

- L. van Beethoven: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 61.
- F. Mendelssohn: Kontzertua biolinerako mi minorrean, op. 64.
- J. Brahms: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 77.
- P. I. Tchaikovsky: Kontzertua biolinerako Re maiorrean, op. 35.
- J. Sibelius: Kontzertua biolinerako re minorrean, op. 47.

C) Orkestra-errepertorioa, jarraian adierazitako zerrendatik Epaimahaiak aukeratzekoa:

Obra-zatiak eskuragarri daude Editorial Schott argitaletxeko "Orchester Probespiel Violín¨-en (Band 2) orkestra-errepertorioko liburuetan (ISMN M-001-08139-9):

- L. van Beethoven: 9. sinfonia re minorrean, op. 125 – 1 eta 2 mugimenduak (II. biolina).
- J. Brahms: 1. kontzertua pianorako re minorrean, op. 15 – 3.mugimendua (II. biolina).
- Bruckner: 9. sinfonia re minorrean – 3. mugimendua (II. biolina).
- F. Liszt: Fausto sinfonia – 2. mugimendua (II. biolina, bakarlaria).
- F. Mendelssohn: Uda-gau bateko ametsa – obertura eta scherzoa. (II. biolina).
- W.A. Mozart: Bahiketa serrailoan obertura. (II. biolina).
- R. Strauss: Don Juan, op. 20. (II. biolina).

III. eranskina

Postua: Biola bakarlaria

Interpretatu beharreko obrak

A) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen eta bigarren mugimenduak jo beharko ditu, dagokion kadentziarekin:

- C. Stamitz: Kontzertua biola eta orkestrarako Re maiorrean, Op. 1.
- F.A. Hoffmeister: Kontzertua biola eta orkestrarako Re maiorrean.

B) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen mugimendua jo beharko du, dagokion kadentziarekin:

- B. Bartók: Biolarako kontzertua (P. Bartok / N. Dellamaggiore edo T. Serlyren bertsioa).
- P. Hindemith: Der Swanendreher, kontzertua biolarako.
- W. Walton: Kontzertua biolarako.

C) Orkestra-errepertorioa, jarraian adierazitako zerrendatik Epaimahaiak aukeratzekoa:

Obra-zatiak eskuragarri daude Editorial Schott argitaletxeko "Orchester Probespiel, Test pieces for orchestral auditions for viola¨-ren orkestra-errepertorioko liburuetan (ISMN M-001-08140-5).

- W.A. Mozart: 40. sinfonia re minorrean, Kv 550 – 4. mugimendua.
- S. Prokofiev: Sinfonia klasikoa, op. 25 – 1. eta 4. mugimenduak.
- F. Schubert: 4. sinfonia do minorrean, D. 417 "Tragikoa" – 4. mugimendua.
- B. Smetana: Ezkongai saldua – Obertura.
- R. Strauss: Don Juan, op. 20.
- L. Delibes: Coppelia – III. ekitaldia, 7.a, soloa.
- R. Strauss: On Kixote op. 35 – 1., 3. eta 4. gaiak eta bariazioak.
- C.M. von Weber: Der Freischütz op. 77 – III. ekitaldia, 13.a, soloa.

IV. eranskina

Postuak: Biolontxelo bakarlaria eta bakarlariaren biolontxelo laguntzailea

Interpretatu beharreko obrak

A) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen mugimendua, dagokion kadentziarekin:

- F.J. Haydn: Kontzertua biolontxelorako Do maiorrean, Hob. Vllb:1.
- F.J. Haydn: Kontzertua biolontxelorako Re maiorrean, Hob. Vllb:2.

B) Hautagaiak ondorengo zerrendatik aukeratutako kontzertuaren lehen eta bigarren mugimenduak jo beharko ditu, dagokion kadentziarekin:

- R. Schumann: Kontzertua biolontxelorako la minorrean, op. 129.
- Dvorák: Kontzertua biolontxelorako si minorrean, op. 104.

C) Orkestra-errepertorioa, jarraian adierazitako zerrendatik Epaimahaiak aukeratzekoa:

Obra-zatiak eskuragarri daude Editorial Schott argitaletxeko "Orchester Probespiel¨-en (Biolontxeloa) orkestra-errepertorioko liburuetan (ISMN M-001-08141-2):

- L. van Beethoven: 5. sinfonia do minorrean, op. 67 – 2. mugimendua.
- J. Brahms: 2. sinfonia Re maiorrean, op. 73 – 1. mugimendua.
- W.A. Mozart: Figaroren ezteiak, obertura.
- R. Strauss: Don Juan, op. 20 .
- P.I. Tchaikovsky: 4. sinfonia fa minorrean, op. 36 – 1. eta 2. mugimenduak.
- G. Rossini: Guillermo Tellen obertura, soloa.
- J. Brahms: 2. kontzertua piano eta orkestrarako – 3. mugimendua, soloa.
- G. Puccini: Tosca – 3. ekitaldia, soloa.
- G. Verdi: Rigoletto – 2.ekitaldia, 9.a, soloa.

V. eranskina
Eskatzen diren tituluak

Instrumentua/Postua	Eskatutako titulua
2. kontzertinoa	Musikako goi-mailako titulua
II. biolin bakarlaria	Musikako erdi-mailako titulua
Biola bakarlaria	Musikako erdi-mailako titulua
Biolontxelo bakarlaria	Musikako erdi-mailako titulua
Biolontxelo bakarlariaren laguntzailea	Musikako erdi-mailako titulua

VI. eranskina
Probetara entzule gisa joateko aukera

Aurretiko akreditazioa:

- Probetara joan nahi duenak akreditazioa eskatu beharko du BOSen, Euskalduna Jauregiko instalazioetara sartzeko baimena kudeatzeko (txartel magnetikoa). Txartel hori telefonoz, faxez edo posta elektroniko bidez eskatu daiteke. (Telefonoa: +34 94 403 52 05 / Faxa: +34 94 403 51 15 / Helbide elektronikoa: audiciones@bilbaorkestra.eus)
  Edonola ere, harremanetarako telefono-zenbakia eta/edo helbide elektronikoa adierazteaz gain, NANaren, nortasun-agiriaren edota pasaportearen fotokopia ere aurkeztu beharko da.
- Hautaketa prozesuan baztertutako hautagaiek ere akreditazioa eskatu beharko dute.

Akreditazioa eskatzeko epea:

- Oro har, akreditazioa probak egin baino 24 ordu lehenago eskatu beharko da.
- Salbuespen gisa, hautaketa prozesuan baztertutako hautagaiek baztertuak izan direla jakin ondoren eskatu ahal izango dute, eta, betiere, gehienezko leku-kopurua errespetatu beharko da.

Akreditazio-eskabideen ebazpena:

- Akreditazio-eskabideak antzinatasunaren arabera ebatziko dira.
- Akreditazioa eskatu izanak ez du esan nahi probetara zuzenean joan daitekeenik. BOSetik igaro beharra dago lehendabizi, txartel magnetikoa jasotzera.
- Pertsona bakoitzeko akreditazio bakarra emango da.
- Akreditazioak izendunak eta besterenezinak izango dira.

Akreditazioak erabiltzeko arauak:

- Akreditazio horrekin, baimendutako eremuetara soilik sartu ahalko da, eta probek irauten duten denbora-tartean baino ez. Euskalduna Jauregiko instalazioetatik ateratzean, eta, edonola ere, probak bukatzean, txartel magnetikoak itzuli egin beharko dira.
- Akreditazioa eskuratu duen entzuleak modu egokian erabili beharko du eman zaion txartela, proben garapena zorroztasunez errespetatuz. Akreditazioa beti egon beharko da agerian.
- BOSek akreditazioak kendu ahalko dizkie entzuleei, modu egokian erabili ez dituztela uste duenean.
- Debekatuta dago entzunaldiak grabatzea, grabazio hori egiteko modua zein helburua edozein izanda ere; horrez gain, erabat isilik egon beharko da entzunaldiek irauten duten artean.
- BOSek emandako jarraibideak errespetatuko dira, une oro.

Gehienezko leku-kopurua:

Probak egingo diren aretoa kontuan hartuta, honakoa izango da gehienezko leku-kopurua: **30 eserleku.**

Bestelako entzuleentzat, oro har, 15 eserleku erreserbatuko dira, gehienez. Gainerako eserlekuak BOSeko langileentzat erreserbatuko dira.